Aralar, Urbasa eta Andia mendiek babestua, Nafarroako ipar-mendebaldean, Sakanako ibar ederra dago. Sakana korridore luze bat da, zelai berde eta antzinako haritzez eta pagoz osatutako baso ugari dituena. **Burunda-Arakil ibaiaren** bi aldeetan – ibaiak ekialdetik mendebaldera zeharkatzen du ibarra- 30 herri daude, duela urte gutxi arte **Burunda, Aranatz, Ergoiena eta Arakil** eskualdeetan biltzen zirenak. Erdigunean, Beriain mendia altxatzen da- **San Donato** ere esaten zaio-. Beriain haranaren ikurra da, eta eremu atlantikoaren eta mediterraneoaren arteko muga bioklimatiko eta kulturala den mendi baten punturik garaiena. **Bi ahizpe eta Erga mendiek eta Oskiako pasabideak** ekialdetik ixten dute ibarra, eta mendebaldetik Arabako Lautadara eta Gipuzkoara zabaltzen da, **Aratz-Aizkorri parke naturalarekin.**

Mendi hauetako soiluneetan, zaldi eta behiekin batera, ardi latxa bazkatzen da. Ardi latxa oso garrantzitsua da Sakanarentzat, bertako ekoizleek Idiazabal gazta bikaina egiten baitute haien esnearekin. Gaztaz gain, bertan egindako txistorra, ogia edo eztia jaki ederrak ere eraman ahalko dituzu etxera.

Halaber, bizipen interesgarriak bizi ahal izango dituzu sakandarrek haraneko herri guztietan zuretzat gordeta dituzten milaka istorioekin. Azokak, jaiak eta erromeriak dira euren herrietan gordetzen dituzten tradizioetako batzuk.

Sakana

Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Sakana

EU

Sakana

Donejakue Bidea



Done Jakue bide historiko batek Sakanako harana zeharkatzen du

Donejakue biderako XI. mendeko garai erabakigarrian, Antso Garces III.a Nagusiak konpostelanoari jarraitzen zioten erromes guztiak Errioxa zeharkatzen zuen bide berri batetik ibiltzera bideratu zituen. Horrela, lurperatuta geratu zen gure egutegiko lehen mendeetatik Sakanako harana zeharkatzen zuen ibilbidea.

Sakanako haranean, Aralar mendiaren magalean, oraindik baso hostotsua zen nagusi, eta erromesak Zamartzeko Monasterioan indarberritzen ziren. Hasiera-hasieratik, monasterioa funtsezkoa izan zen Erromako galtzadan, eta erromesentzako ospitale gisa funtzionatu zuen X. mendearen inguruan. Mendiaren gainaldean, in excelsis, Aralarko San Migel Santutegia altxatzen da. Era berean, Zamartzen, egin diren indusketa arkeologikoetan aurkitutako aztarna erromaniko batzuk ikus daitezke, horien artean, Santiago bideko erromes-maskor bat.

Monasterioa edozein unetan bisita daiteke. Informazio gehiago **www.zamartze.info** weborrian aurkituko duzu.

Erdi Aroko Done Jakue Bidean barrena, Irurtzungo Bi Ahizpetan eta Itxasperriko ermitan hasten den tokitik abiatuta, Sakanako harana zeharkatuko duzu, bertako herri karismatikoen aberastasun kulturala biziz. Bidearen zokoguneek ehun urtetik gorako tradizioekin lotuko zaituzte, hala nola Arbizuko San Joan suekin edo Urdiaingo jentilen misterioarekin, eta aldi berean San Pedroko baselizara hurbiltzen joango zara.